

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Udalaren hiru lokalen errentamendua esleitzeko prozedura irekia

Arraia-Maeztuko Udalak, 2020ko abenduaren 2ko osoko bilkuran, baldintza administrati-bo-ekonomikoen agiria onetsi zuen, Maeztuko Errentamendari kaleko 9an dagoen "Osasun etxea eta botika" izeneko eraikineko erdisotoan udalak dituen hiru lokalen errentamendua prozedura ireki bidez esleitzeko lehiaketa arautzeko.

Baldintza agiriaren laburpena

1. Lizitazioaren xedea: Kontratu honek xede du lehiaketa bidez esleitzea Maeztuko Errentamendari kaleko 9an dagoen "Osasun etxea" izeneko eraikineko erdisotoan udalak dituen hiru lokalen errentamendua. Haien katastro erreferentziak honako hauek dira: 1-179-1-8, 1-179-1-9 eta 1-179-1-10.

Lonja horiei aplikagarri den araudiak baimentzen dituen erabilerak eman ahal izango zaizkie.

2. Lizitazio oinarria: 1.306,80 euro urtean, BEZa barne.

Hori baino eskaintza handiagoak baino ez dira onartuko.

3. Prozedura, izapidetzea eta modua: Irekia. Ohikoa. Lehiaketa.

4. Behin-behineko bermea: Ez.

5. Behin betiko bermea: Errentaren bi hilabete.

6. Espedientea aztertzea:

Arraia-Maeztuko udal bulegoetan (Geltoki kalea 13, Maeztu 01120, Araba), 09:00ak eta 15:00ak bitartean, lizitazio iragarki hau ALHAOn eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo hamabost egun naturaletan.

7. Eskaintzak aurkeztea: Eskaintzak Arraia-Maeztuko udaletxean aurkeztu behar dira (Geltoki kalea 13, Maeztu 01120, Araba), 09:00ak eta 15:00ak bitartean, lizitazio iragarki hau ALHAOn eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo hamabost egun naturaletan.

8. Eskaintza erdua eta aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek baldintza agirian jasotzen den eskaintza erduaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, eta bertan adierazitako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

9. Eskaintzak irekitzea: A eta B gutun azalak jendaurrean irekiko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo zazpigarren egun balioduneko 10:00etan.

10. Iragarki gastuak: Esleipendunak ordainduko ditu.

Maeztu, 2020ko abenduaren 17a

Alkate-lehendakaria

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA